

Testua eta irudiak: **ARNOLD LOBEL**

Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**

Cartoné delakoan koadernatua. 15x21,5 cm.


68 orrialde koloretan. Hizkuntza hauetan eskuragarri:

- Euskaraz: "Osaba Elefante"  
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-672-1
- Gaztelaniaz: "Tío Elefante"  
Libros para soñar. ISBN 978-84-92608-38-6
- Gallegoz: "Tío Elefante"  
Tras os montes. ISBN 978-84-8464-761-4
- Katalaneraz: "L'oncle Elefant"  
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-15170-09-9
- Portugesez: "O tio Elefante"  
Livros para sonhar. ISBN 978-989-8205-66-7

Salneurria: 15 €

## OSABA ELEFANTE

**Ekaitz ikaragarri bat izan zen, eta belaontzia ez zen itzuli. Ama eta Aita itsasoan galdu ziren. Bakarrik nengoen. Nire logelan eseri nintzen gortinak itxita. Logelako atea zabaltzen entzun nuen. «Kaixo, zure Osaba Elefante naiz», esan zuen ahots batek.**



Samurtasuna eta sentiberatasuna dira kontakizun hunkigarri honek transmititzen dituen sentimenduetariko batzuk, garai guztietako ezinbesteko klasiko bat izatera eraman dutenak. Elefante txikiak bolada bat pasatzen du osabarekin, eta arindu egiten zaio gurasoen desagerketagatik sentitzen duen tristezia osabaren ipuin sendatzaile, kantu dibertigarri eta hitz jokoei esker.

Amaiera zorioneko istorio goxo hau egitura zirkularreko bederatzi kapitulutan banatuta, eta Arnold Lobelen beraren irudiez osatuta dago: irudi errealistak, samurrak, kolore leunetakoak eta protagonisten eite sendoak azpimarratzen dituzten argilunez osatuak. Azpimarratzekoa da egilearen trebetasuna testua dotoretasunez janzteko: "Zuhaitz batek hostoak baino zimur gehiago ditut. Hondartza batek hondar-aleak baino zimur gehiago ditut. Zeruak izarrak baino zimur gehiago ditut", dio Osaba Elefantek.

### ARNOLD LOBEL

(Los Ángeles, 1933 – New York, 1987)

Artea ikasi zuen Pratt Institute-n, eta han emazte izango zuena ezagutu zuen, Anita Kempler ilustratzailea. Publizitate agentzia baterako lan egiten hasi zen eta gero beste egile batzuek idatzitakoak ilustratzeari ekin zion. 1962an bere lehen liburua plazaratu zuen, "A Zoo for Mister Muster", eta hurrengo urtean "A Holiday for Mister Muster". Egile eta ilustratzaile gisa irakurleen zein kritikaren esker ona jaso zuen. Eskuratu zituen sarien artean

aipatzekoak dira Caldecott Honour Book, Christopher Award, Caldecott Award eta Newbery Honour Book direlakoak. Bere ibilbide luzean zehar beste idazle batzuen 70 bat liburu eta berak idatzitako beste 30 bat ilustratu zituen.



- **Gaia:** osaba-iioben arteko familia-loturak
- **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera
- **Alderdi azpimarragarriak:** garai guztietako haur literaturako klasiko bat; "Sagu kontuak" eta "Txerritxo" (Kalandraka-Pamiela) obren egilea; honako kapitulu hauek ditu: Osaba Elefantek atea zabaltzen du - Osaba Elefantek zutoinak zenbatzen ditu - Osaba Elefantek lanpara bat pizten du - Osaba Elefantek egunsentiarri orro egiten dio - Osaba Elefantek karraskak sentitzen ditu - Osaba Elefantek ipuin bat kontatzen du - Osaba Elefantek bere jantziak janzten ditu - Osaba Elefantek abesti bat idazten du - Osaba Elefantek atea ixten du
- **Zehar lerroak:** irakurtzen hastea, alegia modernoa, familiarremanak, giza itxurako animaliak